

HIRU ELKARGO BERRI: Ongi etorri!

Elkargoak Euskarazek indar berriekin hasi du urtea, hiru elkargo berri ekimenarekin bat egin dutelako. Lehenik, Ekonomisten Euskal Elkargoa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ekonomialariak batzen dituena. Bigarrenik, Industria Ingeniaritzako Gradudunen eta Ingeniari Tekniko Industrialen Bizkaiko Elkargo Ofiziala eta azkenik, Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa.

TRES NUEVOS COLEGIOS: Ongi etorri!

Elkargoak Euskaraz ha comenzado el año con nuevas fuerzas, ya que tres nuevos colegios se han sumado a la iniciativa. Uno de ellos es el Colegio de Economistas, que agrupa a los colegiados/as de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, otro es el Colegio Oficial de Graduados en Ingeniería Industrial e Ingenieros Técnicos Industriales de Bizkaia, y por último, el Colegio de Educadoras y Educadores Sociales del País Vasco



Ekonomistekin aurretik harreman handia izan dugu eta, adibidez, iaz Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin egin zen aurkezpena haien elkargoan egin genuen. Bestetik ingeniariak gogoz hasi dute eta gauzak euskaraz jartzen hasteko (webgunea, etab.). Eta, Gizarte Hezitzaileekin lehenengo urterako helburuak jadanik jarri dira.

Con el Colegio de Economistas ha habido mucha relación y la presentación que se hizo con la Diputación Foral de Bizkaia y el Gobierno Vasco la hicimos allí. Los ingenieros han empezado con ganas a preparar algunas comunicaciones también en euskera (página web, etc.). Y con el colegio de Educadoras y Educadores ya se han puesto los objetivos para este primer año.

ELKARGOAK EUSKARAZEN BALANTZEA 2025ean euskararen indizea %2,5 gora

Ekimen honek 6 urte bete ditu eta elkargoetan euskararen ahozko eta idatzizko erabilera handitzen ari da eten gabe. Horrela, euskararen indizean %2,5eko igoera egon da eta, eta %45,5era arte heldu gara. Eta 6 urteetan %23,5 puntu hobetu dugu.

2025ean zerbitzu berri bat izan dugu: Aldibereko Itzulpengintza Zerbitzua. Bestetik, itzulpen zerbitzu barruan, 75.072 hitz itzuli, 42.348 zuzendu eta 615 egokitu dira.

Urtero bezala, euskaraz lan egiteko prestakuntza pilulak eskaini dira: “Euskaraldia”, “Outlook euskaraz” eta “Harreman hurbileko idazkiak”.

Ekainean 23 elkargokidek euskara eskolak amaitu eta urrian 22k eman dute izena, ikasteko.

Elkargo bakoitzaren hiztegia gehiago osatu dugu, 2.500 erregistroekin.

Honekin guztiarekin, parte hartzen ari diren elkargoak zoriondu behar ditugu. Aurrera goaz!

BALANCE DE ELKARGOAK EUSKARAZ: en 2025 el índice de euskera ha subido un 2,5%

Esta iniciativa ha cumplido ya 6 años y el uso oral y escrito del euskera sigue progresando. Concretamente subió un 2,5% y hemos llegado este año al 45,5%. Por tanto en 6 años hemos mejorado un 23,3%.

En el 2025 añadimos un nuevo servicio: la Traducción Simultánea. Por otro lado, dentro del servicio de traducción, se han traducido 75.072 palabras, corregido 42.348 y adaptado 615.

Como todos los años, se han ofrecido píldoras formativas para trabajar en euskera: “Euskaraldia”, “Outlook euskaraz” y “Escritos de relación cercana”.

En junio 23 colegiados han finalizado las clases de euskera y en octubre se han inscrito 22.

Hemos completado aun más el diccionario de cada colegio, con 2.500 registros.

Con todo esto, debemos felicitar a los colegios participantes. ¡Vamos avanzando!